

CNAIren SEIURTEETARAKO DEIALDIA, 2018:
EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA ETA
BERRIKUNTZAREN ARLOA
Jarraibideak, UPV/EHUko merezimenduen ziurtagiriak eskatzeko

Ikerlana Ebaluatzeko Estatuko Batzordeak (CNEAI) seiurteetarako egin duen deialdian parte hartu nahi duten ikertzaileek eskaria egin dezakete merezimenduen ziurtagiriak eskatzeko. Horretarako, hauexek dira jarraibideak:

IKERKETAKO ZIURTAGIRIAK ESKATZEKO:	Ikertzaile bakoitzak eskari bakar bat egingo du, posta elektronikoz, Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzari (IGZ) zuzendua: ikertu@ehu.eus . Ikertzaileak izen-abizenak eta NAN zenbakia adierazi beharko ditu. IGZk bilduko ditu eskari guztiak, eta ziurtagiria egiteko eskumenik ez duenean, hala dagokion zerbitzura bidaliko du.
EPEA:	Eskariak egiteko barne epe hau <u>2019ko urtarrilaren 7an bukatuko da (egun hori barne).</u> <u>Antolaketa arazoak direla eta, EZ DA egingo epez kanpo eskatutako ziurtagiririk.</u>
DEIALDIARI LOTUTAKO GAIETARAKO:	<u>IGZa ikerketako merezimenduen ziurtagiriak egiteaz baino ez da arduratuko.</u> Deialdiari buruzko zalantzetarako eta informazioa eskatzeko helbide honetara idatzi: ayuda.cneai@aneca.es ; edo CNEAIk harremanetarako zehaztutako telefonoetara deitu (<u>lotura honetan dituzue</u>). UPV/EHUUn, deialdiari buruzko beste gai batzuei buruz galdetzeko jo ezazue Irakasle-ikertzaileen Gerenteordetzara.
IKERKETAKO PROIEKTUEN ZIURTAGIRIETARAKO:	Ziurtagiri horiek Ikertu aplikazioaren bidez egingo dira, eta bertan ageriko dira urte hauetan ikertzaileari eman zaizkion proiektuak. 2007a baino lehenago emandako proiektuetarako, proiektuari buruzko honako informazioa zehaztu beharko da: - Kodea - Titulua - Ikertzaile nagusiaren izen-abizenak
ULOko 83. ARTIKULUAREN BABESEAN EGINDAKO KONTRATUETARAKO:	Eskari bakar bat egin behar da ikertu@ehu.eus helbidera idatzita, eta IGZk bidaliko du Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzara. Ziurtagiri horiek Ikertu aplikazioaren bidez egingo dira, eta bertan ageriko dira urte hauetan ikertzaileari eman zaizkion kontratuak. 2007a baino lehenago emandako kontratuetarako, kontratuari buruzko honako informazioa zehaztu beharko da:

	<ul style="list-style-type: none"> - Kodea - Titulua - Ikertzaile nagusiaren izen-abizenak
PATENTEAK, ERREGISTRATUT AKO BESTE EZAGUTZAREN BAT, USTIAKETA AKORDIOAK ETA ROYALTIEN BIDEZKO FAKTURAZIOAK:	Eskari bakar bat egin behar da ikertu@ehu.eus helbidera idatzita, eta IGZk bidaliko du Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzara.
LANGILEEN KONTRATAZIOA:	<p>Eskari bakar bat egin behar da ikertu@ehu.eus helbidera idatzita.</p> <p>Proiektuaren kargura kontratatuko langileei buruzko ziurtagiriak eskatu ahal izango dira. IGZak UPV/EHUren erregistroan (Meta4n) egiaztatuko ditu kontratu horiek, eta kontratuon indarraldia ziurtatuko du. <u>Kontratua ez bada datu base horretan ageri, ez da ziurtagiririk egingo.</u></p> <p>NAHITAEZKOA da kontratuari buruzko datu hauek zehaztea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izen osoa - NAN/AIZ - Kontratuaren gutxi gorabeherako indarraldia
ENPRESEKIN LANKIDETZAN EGINDAKO PROIEKTUAK	Transferentzia balio ekonomikoaren sortzaile edo gizarterako balio sortzailea dela kontuan hartze aldera, ikertzaileak IGZak emandako ziurtagirian baldintzak betetzen dituzten proiektuak zehaztu beharko ditu.

Deialdiari buruzko informazio zabalagoa:

<http://www.educacionyfp.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/ca/catalogo/general/educacion/050920/ficha/050920-2018-tramos.html>